Enpresagintza Fakultatea

Aktualitatea

Berdintasun diagnosia

2008/11/24

Azken urteetako legediak aurrerapauso garrantzitsuak egin ditu emakume eta gizonen arteko berdintasun formala bermatzeko. Hortxe ditugu Eusko Legebiltzarraren legea, baita Espainiako Gobernuaren berdintasun lege famatua ere. Indarra hasieran administrazio publikoan jarri bazen ere, azkenaldian interesa enpresa pribatura pasa da.

Gure aldetik, enpresa eta unibertsitate izanik, interesgarria da berdintasunaren eremuan, gutxienez, hausnarketa bat bideratzea. Alde batetik, langile bezala berdintasuna bermatzeko denon lan aukeretan. Baita laneko eta etxeko bizitza uztartzeko baldintzak bultzatzeko ere. Bestetik, hezkuntza zentro bezala, guri dagokigu etorkizuneko kudeatzaileengan berdintasunezko kultura sustatzea.

Hori horrela izanda, Berdintasun Diagnostikoa eta Plana egitea erabaki da Enpresa Zientzien Fakultatean.

Planaren lanik mardulena aholkulari batek egingo du, Murgibe enpresako Itxasne Martinezek. Dena dela, proiektuak eskatzen du langilegoaren partaidetza eta inplikazioa. Azken finean, langilegoak interpretatu behar ditu datuak eta zein ekintza burutu nahi den erabaki. Horretarako Berdintasun Taldea osatu da. Bertan fakultateko 8 pertsonak hartuko dute parte.

Diagnostikoaren fasean datu kuantitatibo eta kualitatiboak jasoko dira. Datu kuantiatiboek emango dute plantilaren egitura eta banaketa; datu kualitatiboek bertan daudenen iritzi, espektatiba eta esperientziak jasoko dituzte. Horretarako, bi ekintza burutuko dira, berriro ere denon partehartzea eskatuko dutenak:
- Fakultateko hainbat pertsonei elkarrizketak egingo dizkie Itxasnek.
- Eztabaida taldeak osatuko dira: bat emakumeekin eta bestea gizonekin.

Eztabaida taldeetan parte hartzea borondatezkoa da, interesa duen edonork parte har dezake, berdintasunaren inguruan zerbait esateko duen pertsona orok.

Diagnostikoaren fasea azaroa eta abenduan zehar egingo da eta Berdintasun Plana urtarrilerako izango dugu.